

Zorionak eta urte berri on!



Neguko oporrak Urumea bailaran

Tailerrak, jolasak, antzerkiak eta gehiago, neguko oporretarako

Abenduaren 28rako, 29rako eta urtarrilaren 5erako antolatutako kultur emanaldietarako sarrerek kultura.hernani.eus webgunean edota Biteriko leihatilan erosi daitezke.

URUMEA NEGUKO OPORRAK

Hemen dira neguko oporrak, eta herritarrek aspertzeko tarterik izan ez dezaten makina bat jarduera prestatu dituzte, Urumea bailaran. Pasa den asteazkenean, *Neguko oporretan zer?* egitaraua aurkeztu zuten Hernaniko Udal Liburutegiko Ainara Aiestaran arduradunak, Kultura Saileko Koro Etxeberriak eta Esti Mujikak; Jarduera Fisiko eta Kirol saileko Ane Ibarburuk; eta azkenik, Haur eta Gazteria Saileko Maider Errastik eta Gaztelekuko hezitzaileek. Jarduera hauek datorren asteartean hasiko dira, eta herritarrek urtarrilaren 5era arte izango dute ekintzetan parte hartzeko aukera: «bereziki umeei eta nerabeei zuzendutako jarduera bateratuak antolatu ditugu: Gaztelekuko antolatuta, txistor jana, kamisetak diseinatzeko eta

egiteko tailerra; jarduera fisiko eta kirol sailak antolatuta, Ludoteka; liburutegiaren eskutik komiki tailerra. Jarduera hauek gain, Olentzero eta Maridomingiren etorrera berezia izango da aurtengoa, izan ere, abenduaren 24ean, goizean zehar Olentzerok eta Maridomingik herriko auzo guztiak igaroko dituzte traktore gainean, geldialdirik egin gabe, eta arratsaldean, ohiko kale buelta emango dute, Ttarla dantza taldearekin batera.

Hernaniko Gaztelekuak antolatutako ekintzen artean, serigrafia eta *graffity* tailerretan izena eman behar da, Gaztelekura bertaratuz, 688 823 420 telefonora idatziz, edota gaztelekua@hernani.eus helbidera idatzita. Eta hezitzaileek honakoa jakinarazi dute: «5 euroko fidantza ordaindu beharko dute izena ematerako garaian. Izene-mate orria beteta eta sinatuta



Asteazkenean aurkeztu zuten 'Neguko oporretan zer?' egitaraua, liburutegian.

ekarri beharko dute». Argigrama, *Funky*, eta Sormen saioetan parte hartzeko, berriz, izena eman behar da ondorengo telefonora deituta: 943 33 70 41.

Bestalde, abenduaren 28rako Kattagorriaren elezaharra antzerkia antolatu dute. Abenduaren 29rako, berriz, *eRRe. Aldarri bat bertsoz bertso*-ikuskizuna. Abenduaren 30ean, Izaro igoko da oholtzara; eta urtarrilaren

4rako, *Pintto Pintto* haur antzerkia. Ekitaldi hauetarako sarrerek erosteko ohiko bideak jarri ditu Kulturak Sailak, hau da, kultura.hernani.eus webgunean, edo Biteriko leihatilan. Izarok eskainiko duen kontzerturako sarrerek dagoeneko agortuta daudela ere ziurtatu zuten aurkezpenean.

Negulekuak Doberarekin
Doberak urtero moduan, Ne-

gulekuak antolatu ditu neguko oporretarako, haurrentzat eta gazteentzat. Abenduaren 23an hasiko dira ekintzak eta urtarrilaren 5ean izango da Negulekue-tako azken jardura. Honakoak izango dira burutuko diren tailerrak, besteak beste: ezagutza jolasak; taldeko kamixetak egiteko tailerra, herri kirolak, lagun ezkutua; irteerak; eta mota guztietako eskulanak.

AITAN - ETXE TABERNA

GABON JAI ZORIONTSUAK!

Larramendi, 15
943 55 00 46

Amalia
arrandegia

Zorionak eta urte berri on!

943 55 07 52 / 650 53 87 72
Andre Kalea 34. 20120 HERNANI

urteberri on!!

AKZEN KILOMETROA

943 24 71 41 Akarregi, 1 Hernani

EMAKUME, GIZON ETA HAURRAK

IRIGOYEN

ELKANO, 4
TEL. 943 55 08 31
HERNANI
EGUBERRI ON!!

ALAIA
ODONTOLOGIA ZENTROA

GABON JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!

Antziola 11, behe. HERNANI Tel. 943 33 53 73 www.alaiaclinica.com alaihernani@gmail.com

AKELENEA
Erretegia - XIX Mendeko Sagardotegian

Zorionak eta urte berri on!

Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - Tel. 943 333 333

Astigarragan ere, neguko oporrak haurrekin eta gazteekin

Astigartarrek ere, neguko oporretan jolasteko eta entretenitzeko hainbat jarduera antolatu dituzte. Etzi, *Astigarte 25 urte* erakusketa irekiko dute Astigarte kultur elkarteko ikasleek, izan ere, oihal ezberdinekin, patroiak sortu eta jantzi bihurtu dituzte. Erakusketa ikusgai egongo da, etzitik abenduaren 30era arte, goizeko 09:00etatik eguerdiko 13:00etara eta arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara bitartean, Erriberan. Hilaren 23an, Astiga-

rragako Eragiyok abesbatzak, Eguberrietako kontzertua eskainiko du, Pablo Sorozabal omenitzeko asmotan, musikariaren jaiotzaren 125garren urteurrenengan. Omenaldiaz gain, opera pasarteak eta Gabon kanta entzun ahal izango dituzte herriarrek. Kontzertua Andre Mari elizan izango da, arratsaldeko 19:30etan hasita. Hurrengo egunean, Olentzero eta Maridomigiren bisitaz gozatzeko parada izango dute astigartar txikiek. Santiomenditik jaitsiko da bikotea, goizeko 10:30ak aldera, eta haurrekin Foru Plazan elkartu-

ko da, 11:00etan. Jarraian, denok batera kalejiran ibiliko dira.

Abenduaren 26tik urtarri-laren 5era, haurrentzako jolas mordo antolatu dituzte, kiroldegiko azpiko aretoan, hala nola, ping-pong, mahai-jolasak, futbolina, eskulanak.... Goizeko 11:00etatik 13:00etara bitartean eta 16:00etatik 18:30etara izango dute horretarako aukera. Antolatzailerak azpimarratu dute, hurren sarrera-irteera ez dela gainbegiraturiko. Jolasez gain, magian murgiltzeko tarte ere eskainiko zaie, artigartar helduei zein txikiei. Izan ere, magia saioa es-

kainiko dute Asier Kidamek, Edu magoak, Marselek eta Xabi magoak, hilaren 29an, Erriberan. Arratsaldeko 17:00etan emango zaio hasiera saioari, eta euskeraz izango da. Sarrerak 3 euro balio du txikientzat, eta 6 euro, helduentzat. Hilabeteari amaiera emateko, hilaren 30ean, Goiko Gela talde gipuzkoarrak musika kontzertua eskainiko du, arratsaldeko 20:00etan, Erriberan.

Eguberrietako tailerrak, Goizuetan eta Aranon

Urtero lez, aurten ere Eguberrietako oporrak modu paregabe

pasatzeko bat egin dute Aranok eta Goizuetak. Hala, Arano, Areso, Goizuetak eta Leitzako Euskara Zerbitzuak antolatuta, lau egunez tailerrak egingen dituzte, abenduan. Hilaren 27a, 28a eta 30ean izanen dira Goizuetan; eta abenduaren 29an, berriz, Aranon. Dindaia Fundazioak kudeatutako tailer hauek, 10:00etatik 13:00etara bitartean egingen dira, Goizuetako eskolan eta Aranon Maisuenean.

Azpiko agendan daude ikusgai, Urumea bailaran egingo diren ekintzak, neguko oporretan. **k**

Neguko oporrak			
HERNANI		tailerra. Liburutegian.	
Abenduak 20 16:30 Opariak egin. Gaztelekuan.		Abenduak 27 10:00-13:00 Ludoketa. Kiroldegian.	
Abenduak 21 16:30 Sukaldaritza tailerra. Txistorrada, Gaztelekuan.		11:00-12:30 Komikigintza tailerra. Liburutegian. 17:00-19:00 Serigrafia tailerra. Gaztelekuan.	
Abenduak 22 16:30 Graffity tailerra. Gaztelekuan.		Abenduak 28 10:00-13:00 Ludoketa. Kiroldegian. 11:00-12:30 Komikigintza tailerra. Liburutegian. 16:30-20:30 Ping-pong txapelketa. Gaztelekuan. 18:00 Antzerkia. <i>Kattagorriaren elezaharra</i> . Biteirn.	
Abenduak 23 16:30 Neguko oporren dekorazioa. Gaztelekuan.		Abenduak 29 10:30-12:30 Argigrama tailerra. Aristizabal 7. 19:30 eRRe. <i>Aldarri bat bertsoz</i> . Bertso ikuskizuna Biteirin.	
Abenduak 24 16:30 Olentzero eta Mari Domigiren etorrera. Goizean auzoetatik eta arratsaldean betiko kale buelta.		Abenduak 30 10:30-12:30 Argigrama tailerra. Aristizabal 7. 16:30-20:30 Bingoa. Gaztelekuan. 22:00 Izaro. Kontzertua. Kiroldegiko pistan.	
Abenduak 26 10:00-13:00 Ludoteka. Kiroldegian. 11:00-12:30 Komikigintza		Urtarrilak 2 16:30-20:30 Sukaldaritza. Txurroak eta txokolatea. Gaztelekuan.	
		Urtarrilak 3 11:00-12:30 Funky. Hip-Hop tailerra. Kiroldegian. 11:00-13:00 Sormen Saioa. Berexiartekin. Aristizabal 7. 16:30-20:30 Wii bideojolasak. Gaztelekuan.	
		Urtarrilak 4 11:00-12:30 Funky. Hip-Hop tailerra. Kiroldegian. 17:00-19:00 Serigrafia tailerra. 18:00 Antzerkia: <i>Pintto pintto</i> . Biteirn.	
		Urtarrilak 5 09:30-14:30 Sormen saioa. Berexiartekin. Aristizabal 7. 11:00-12:30 Funky. Hip-hop tailerra. Kiroldegian. 16:30 Neguko oporren dekorazioa. Gaztelekuan.	
		DOBERAKO NEGULEKUAK	
		Abenduak 23, 26, 27, 28, 29, 30 eta urtarrilak 2, 3, 4 eta 5. 09:00-13:30	
		Mota guztietako ekintzak, besteak beste: ezagutza jolasak irteerak, Taloak egiteko tailerra, herri kirolak...	
		ASTIGARRAGA	
		Abenduak 19tik 30era Erakusketa: Astigarte 25 urte.	
		Abenduak 23 19:30 Eragiyok abesbatza. Andre Mari elizan.	
		Abenduak 24	
		11:00 Olentzeroa Foru Plazatik.	
		Abenduak 26tik urtarriaren 5era	
		11:00-13:00/16:00-18:30 Jolas aretoa	
		Abenduak 29 17:00 Magia saioa. Erriberan.	
		Abenduak 30 20:00 Musika: Goiko gela. Erriberan.	
		GOIZUETA	
		Abenduaren 27, 28 eta 30 10:00- 13:00	
		Eguberrietako tailerrak. Goizuetako eskolan.	
		ARANO	
		Abenduaren 29 10:00- 13:00	
		Eguberrietako tailerrak. Maisuenean.	

OKINDEGIA - GOZOTEGIA

Amaia Uitzel Anton

Zorionak eta urte berri on!!

Kale Nagusia - GOIZUETA 948 51 42 42

Zorionak eta urte berri on!

Gudarien plaza, 13. Hernani
Telefona: 943 55 02 54
Faxa: 943 33 58 01
gse@gseasesores.net

2023AK
HERNANIK
BEHAR DITUEN
ALDAKETAK
EKAR DITZALA

Zorionak eta urte berri on!

Eskerrik asko
10 urte hauetan
gugan jarritako
konfiantzagatik

Zorionak eta urte berri on!

ARRIATZU BARAZKIAK

Atzeta kalea, 41. Hernani

Euskal Pizzak Gabon zoriontsuak opa dizkizue!

Euskalpizza Hernani
943 33 33 73
Larramendi, 3. Hernani

ikusi-makusi Eguberriion!!!!

17an arratsaldez irekita

facebook.com/ikusimakusi
Instagram.com/ikusimakusiherani

Nagusia, 7. Hernani
843 63 04 69 634 607 099

Gabonak - Eskulanak

Eskuz egindako oparien kutsu berezia

Ate ondoan jartzeko zintzilikarioa, mugikorra gordetzeko zorroa, amets-harrapatzailea, Gabonetako kanpaia eta ispiluen markoak eskuz egiteko gomendioak eta pausuak aurkituko dituzue ondorengo testuan. Kronikak proposatutako eskulan hauekin ingurukoak txundituta utziko dituzue!

URUMEA ESKULANAK

Datorren astean, Gabonetan sartuta egongo gara bete-betean: urtea amaitzeko, eta urte berriari hasiera emateko maite ditugunei opariak egiteko garaia, hain justu. Askok ezetza badiote ere, opari berezienak eskuz eginak izaten dira, badutelako maitasuna eta goxotasuna. Hori horrela, eskulan ederrak egiteko hainbat proposamen aurkitu ditu Kronikak, *Guraso.eus* webgunean, eta hauek elkarbanatuko ditu, herri-tarrekin, hala nola, ate ondoan jartzeko zintzilikarioa; mugikorra gordetzeko zorroa; amets-harrapatzailea, Gabonetako kanpaia eta ispiluen markoak.

Ate ondoan jartzeko zintzilikarioa

Logelako atea apaintzeko, ate ondoan jartzeko zintzilikario proposamena bota du Nerea Villak. Ondoko materiala behar

da, ate ondoan jartzeko zintzilikarioa sortzeko: azazkaletako laka; makarroiak; botoiak; koko bat edo bestela, natilla edo jogur pote bat; txotxa luze bat; erabilitako kafe kapsulak; haria; zulatzeo aparailua eta broka; eta kola zuria. Behin materiala prestatuta, ate ondoan jartzeko zintzilikarioa egiteko ondorengo pausuak jarraitu behar dira: sartu txotxa makarrietan, eta margotu azazkaletako lakarekin. Errazagoa izango da horrela margotzea. Jarraian, margotutako makarroiari sartu haria barrutik. Ez daitezen irten, puntan lotu botoi bat, tope bezala. Hurrengo pausua da kafe-kapsula zulatu eta makarroiaren ondoan jartzea, harian sartuta. Tiburoi izeneko makarroi mota jarri, tope bezala. Ondoren, zulatu kokoa zulatzeo makinarekin edo iltzearekin eta mailuarekin. Gero, horietatik sartu makarroiak eta kafe-kapsulak dituz-

ten hariak, eta lotu. Bosgarren pausua izango da beste zulo bat egitea kokoaren goiko zatian. Bertan ipini zintzilik jartzeko hariarekin eginiko lotura. Botoi bat erabili lotura egiteko. Botoia kola zuriarekin itsatsi, eta zintzilikarioa prest izango duzu, orain oparietarako bildu eta oparitu gertuko norbaiti; seguru txundituta utziko duzula.

Mugikorra gordetzeko zorroa
Hurrengo eskulanak, praktiktasun haundia du: egunero eta aldi oro erabiltzen dugun mugikorra babesteko zorroa. Alaitz Jauregik proposatutako eskulan honetan nahi adina kolore eta osagarri erabili daitezke. Mugikorra babesteko zorroa egiteko beharrezkoa izango da: feltro edo tela zati bat; haria eta jostorratza; dekorazioa; guraizeak; eta kola. Material guztia mahai gainean edukita, has gaitezen zorroa sortzen! Lehenik eta



Ate ondoan jartzeko zintzilikarioa. Argazkia: Guraso.eus.

behin, moztu tela, feltroa... aukeratutako materiala eskuko telefonoaren neurria baino zentimetro bat zabalago; ondoren, erditik tolestu eta itsatsi dekoratzeko nahi duzuna, hala nola, botoi bat, tximeleta bat, txapa bat... Jarraian josi bi botoiak;

eta amaitzeko mugikorra sartu barruan eta modu honetara, zorroa beste egongo da gailua alde batetik bestera eramateko!

Amets harrapatzailea

Aski ezaguna da ametsak harrapatzeko erabiltzen den lumadun

iparra
www.iparrasukaldeak.com

Zorionak eta Urte Berri on!

iberluze poligonoa, 7
20120 · Hernani
t. 943 556 760

BRINTZA
AHOLKULARITZA · CONSULTORIA

Zorionak eta Urte Berri On!

www.brintza.com
URBIA KALEA 15, HERNANI
Tel.: 943 33 12 67 Fax: 943 33 08 92

HATOR
AHOLKULARITZA

Gabon zoriontsuak eta urte berri oparoa opa dizkizuegu!

Andrekale, 60. Hernani
Tel: 943 55 43 12
www.hatoraholkularitza.net

Eguberri on!

PINEDA
HARATEGIA

Andre kalea, 32. Hernani
943 55 16 43

sulabe
Ogirik berezia

Eraman zure mahaira Sulabe ogia

www.sulabe.com

Irrigoenea Okindegia. Hernani
Tel. 943 331 725

Peña Okindegia. Hernani
Tel. 943 552 398

Sulabe. Hernani
Tel. 943 554 954

Gabon jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Feli
1945

Dekoradorak
ESTITXU eta GEMA ANDUEZA
Etxe apainketan adituak

Karobieta 1, 20120 Hernani
943 33 05 64
felidecoracion@gmail.com

Zure ametsa, gure lana...

tresna: amets harrapatzailea. Eta hau eskuz nola egin proposatu du Alaitz Jauregik. Ondorengo materiala beharko da: alanbre bat edo forma zirkularreko bestelako materialen bat, borobil forma emateko; soka edo haria; koloretako beira-aleak (bitxiak edo apaingarriak); lumak; eta kola beroa. Materiala prestatzean, honakoak dira eman behar diren pausuak: lehenik, sokarekin buelta osoa pasa borobildutako alanbreari edota forma zirkularra duen materialari; borobil erdian armiarma-sare moduko bat sortu sokarekin. Horretarako, alde batera eta bestera pasa soka; jarraian, itsatsi beira-aleak borobilaren inguruan kola beroarekin. Nahiago duzun bezala apaindu. Apaindu eta gero, zintzilikatu pare bat hari luzetara, eta puntuetan itsatsi lumak. Luzeagoak erdian eta alboetan motzagoak jarri daitezke. Amaitzeko, logelan edo atean zintzilik jartzeko, haria jarri goiko aldean, eta amets gaiztoak harrapatzeko tresna prest izango duzu!

Usaindun olagarroa

Armairuan usain goxoa edukitzeko eskulana ere proposatu dute *Guraso.eus*: usaindun olagarroa. Bakoitzak nahi duen usaina aukeratu dezake, hala nola, labanda, menta, koko usaina... Beraz, adi, hemen dator eta, eskuz egindako usaindun olagarroa egiteko behar duzun informazioa.

Gure olagarroa egiteko behar dugun materiala honakoa izango da: guraizeak; baratzurien poltsa sarea; pipak garbitzekoak; botoiak; kola zuria edo

kola beroko pistola; eta azkenik bakoitzak nahi duen usaina duen landare lehorra, adibidez, izpiliku-landarea (labanda). Eta honakoak dira olagarroa egiteko jarraitu beharreko pausuak: lehendabizi, moztu aukeratutako landare lehorra eta baratzurien sarean sartu; jarraian lotu zakua eta barruan, pipak garbitzekoak sartu eta puntak biribildu. Ondoren, begiak itsatsi, muturra moztu eta itxi kolarekin. Segidan, zakua muturrean zintzilikatzeko soka jarri eta behin amaituta, armairuan jartzeko prest! Gainera, usain ona emateaz gain, pipittaren aurka langunduko du.

Gabonetako kanpaia

Gabonetako apaingarri eder bat egiteko jarraibideak dituzue jarraian. Ze apaingarri? Gabonetako kanpaia. Hau da eskulana egiteko beharko dugun materiala: jogur potea; koloretako zerealak; makarroiak; artilea edo haria; kola zuria; purpurina; pintzela; hari-karrete bat; lepokoak egiteko bolaxo bat; kortxoak ateratzekoa edota orratz bat; azazkaletako laka. Eta jarraian, Gabonetako eskulan eder hau egiteko argibideak: lehenik eta behin, jogur potea hartu eta pintzelarekin kola zuria eman. Kola emandakoan, gainean zerealak itsatsi, eta makarroiak margotu azazkaletako pinturarekin. Poteari ere makarroiak pegatu, kola zuriarekin eta haria ere bai, potearen inguruan. Potearen goiko zatia margotu azazkaletako pinturarekin eta soberan geratutako kola eta laka aprobeztatzeko,

ko, purpurina bota. Ondoren, orratzarekin lagunduz, zuloa egin potearen gainaldean eta hariaren karrete hutsa margotu beharko da jarraian. Behin margotuta, lepokoak egiteko bolaxoa puntan jarri. Horretarako haria erabili, haria bera goiko zuletik pasa eta berriz barrura itzuli barrutik korapilo bat egin. Eta era honetan, kanpaia zintzilikatzeko euskarria egingo dugu hariarekin. Hala, kanpaia prest geldituko da, norberak nahi duen txokoa apaintzeko.

Ispiluentzako markoak

Eskulanak egiteko materiala biltzea, batzuetan aitzakia ederra izan daiteke basoan zehar ibilaldira bat egiteko. Aukera bat izan daiteke, adibidez, mendira edo basora joan, eta egur zati txikiak biltzea. Honela, forma ezberdinetako ispiluak apaindu daitezke, naturako elementuak erabiliz. Ispiluentzako markoak egiteko materiala, ondorengo da: basoan batutako makilak, edota hostoak; kola beroa, ispilu txikiak; guraizeak; eta kartoiak. Orain honako pausuak jarraitu, marko eder batzuk egiteko: lehenik etxetik atera eta baso edota mendi batera joan, eta lurreko makiltxoak batu; eta egokienak aukeratutakoan gorde eta etxera eraman. Behin etxean, ispilua kartoi edo xafra batean pegatu. Segidan, ispiluaren bueltan bildutako egur zatitxoak pegatu, bakoitzaren gustuen arabera. Azkenik, ispiluaren atzealdean ere egurrak itsatsi eta naturako elementuez osatutako ispilua prest izango duzu! **k**



Mukigorra babesteko zorroa.



Usaindun olagarroa. Argazkia: Guraso.eus.

MK
estudioa
ileapaindegia

Jai
zoriontsuak!

Andreakale 48, atzealdea
HERNANI
943 55 20 81 / 688732631

Mahuka

Gabon
zoriontsuak
opa dizkizuegu!

ANDRE KALEA, 28 BEHEA
HERNANI
943 333 639

JOMER
EDARITEGIA

Kale Nagusia, 7
Tel.: 943 55 00 32

PODOLOGIA
NEREA URDALLETA GUERRA

**ONDO IBILI
GABONETAN**

943 55 60 13
KALE NAGUSIA 16,
ASTIGARRAGA

**apaindura
OIHALA
hogar**

**Zorionak eta
eguberri on!**

Elkano, 11
Tel. 943 55 64 87
HERNANI

URRATS
OINETAKOAK

Iturriaga, 3 HERNANI
Tel. 943 55 65 64

**JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU!**

Aurtengo Gabonei
elkartasuna eskatuko diegu
eta urte berriari
osasuna.
Urratsen partetik:
"Zorionak
eta urte berri on!"

Gabonetako ordutegia:
Larunbata 17: 9:30-14:00 17:00-19:30
Larunbata 24: 9:30-14:00

www.Facebook.com/urratshernani
@ urratshernani@gmail.com

Sortzaileon Azoka

Gabonetarako tokiko opari ederrenak, Sortzaileon Azokan

Dobera-Kronikak, gaur, Sortzaileon Azoka antolatu du Atsegindegian, eta goizeko 10:00etan irekiko ditu ateak.

Eguerdiko 14:00ak arte egongo da aukera bailarako sortzaileek eskaintzen dutenaz gozatu, aukeratu eta Gabonetarako opari ederrak erosteko. Hala, Sortzaileon Azoka osatuko duten produktuen nondik norakoak eman dizkigute, bailarako sortzaileek.

23. orrialdean jarraipena ->



Arrate eta Nekane

Arrate eta Nekane gara, puntua eta *gantxillua* egi-tea gustatzen zaigun bi lagun. Guretzat gure lana artisautza da. Guk eginiko lan guztiak gogo eta maitasun haundiarekin eginda daude.




Maitane Andueza

Mimoz eta goxotasunez sortutako pitxiak egiten ditut, korapiloz korapilo landutako makrame teknikarekin eta alpakazko alambrea tolestuz eginak, eta guztiak harri naturalekin nahasturik.



Puochinah-Laster arte

Azizek eta Maialenek, Kamerunek eta Euskal Herriak, osatzen dugu proiektua. Afrika mendebaldeko wax oihalez jositako sorkuntzak aurkituko dituzue gurean, etxeko goxotasunetik sortuak.



Berexi Art

Sorkuntza forma ezberdinetan, ilustrazioaren munduan murgilduta nago Berexi Art proiektuan. Batik bat, diseinu grafikoaren eta serigrafiaren bitartez, ilustrazioak lantzen ditut.



Ander Gezala

Bonsai bihurtzeko landare desberdinen lehen urratsak. Nire landareekin kimu bat bonsai bihurtzen ikusteko aukera izango dezu zure etxean. Horretarako, landareei lehen zainketa batzuk egiten dizkiet, guztia prest izan dezazun zure zuhaitz txikia lortzeko.



Izaskun eta Josune

Izaskun eta Josune sortzaileak gara. Bertako sendabellarrekin eta gai naturalekin egiten ditugu gure produktuak; besteak beste, ukenduak, hortzetako pasta eta xaboiak.

Zorionak eta Urte Berri On!

DORRONSORO OKINDEGIA

Obradore nagusia Akarregin
Akarregi poligonoa 14A-2
DENDA, KUTXIAK ETA KAFETEGIA
Ordutegia: 5:30-14:30 / 16:00-20:00
Jalegunetan: 7:00-14:30

Denda herriko kaxkoan
Lizeaga kalea 4
OGIA ETA BOLLERIA AUKERAN
Ordutegia: 7:00-14:00 / 17:00-21:00
Jalegunetan: 7:00-14:00

Xarimant

Ileapaindegia Estetika Zentroa

Urte berri on!!!!

Oribolaga 2, Tlf. 943 33 59 08

URALDE ITURGINTZA K21

50. URTEURRENA 1979 - 2029

ITURGINTZA
GASA
BEROKUNTZA
AIRE EGOKITUA
ZORU BERO EMAILEAK
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
MANTENUA

GABON JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!

50 urte bete ditugun honetan, bezero guztiei eskerrak eman nahi dizkizuegu, bide hau gure ondoan egiteagatik. Mila esker!

Mañe y Fiaquez, 5 behe 1 HERNANI - Tel 943 55 33 55 - uralde@uraldeiturgintza.com



Saioa García

Nire artelanetan sentimenduak eta emozioak irudikatzen saiatzen naiz. Artelan desberdinak egiten ditut; besteak beste ilustrazioak, koadroak. Leoak, akuarelak, arte dijitalako teknikak erabiltzen ditut.



Amaia Oihaneder

25 urte zeramikan murgilduta, bai klaseak ematen eta baita nire artelanak egiten ere. Pandemian makramearekin hasi eta gaur egun bi teknikak landu eta elkartzen ditut askotan. Debako arte eskolan eta La Bisbal en ikasitakoa.



Itzal Diseinua

Hernanin kokatutako tailer denda honetan eskuz egindako osagarriak sortzen dira. Poltsa eta motxiletik hasita, lepoko, diru zorro eta turbanteak arte. Marina dago Itzal proiektuaren atzean, duela urte batzuk hasi zena.



Sigue la Estela

Umeentzako Sigue la Estela produktuak egiten ditut modu pertsonalizatuan. Maitasun askorekin produktu barietate ugari egiten ditut, baita urtebetetzeetarako produktuak ere.



Ana Velez



Txirikorda

Goizuetako Koro eta Garazi gara (ama eta alaba). Poltsak, buruko zapiak, mototsekoak egiten ditugu eta azken hilabete honetan berrikuntza txiki batekin ausartu gara: bitxiak.



Irantzu

Ehungintzan oinarritzen da nire proiektua (arte textil). Neure diseinu eta ilustrazioak sortzen ditut eta edozein arropatan pintzelez pintatzen ditut.

Jaxone Usandizaga

Zeramika lanak egiten ditut. Edozein etxetarako egokiak izan daitezkeen zeramikazko eskultura txikiak eta bestelako apaingarriez gain, neurri eta erabilera ezberdinetarako ontziak ere egiten ditut. Zein goxoa dagoen zopa zeramikazko ontzi batetik hartzean!



Laura Pacheco

Laupitxiak-ek erretxinaz egindako bitxiak sortzen ditu, eskuz eta dedikazio handiz. Desberdinak, bakarrak, koloretsuak, txikiak, handiak...

IRUBIDE
JATETXEA



Zorionak
eta urte berri on!

Epele auzoa, 7
943 552 480 - 667 208 702

Eguberri on!!



ITXASPE

Arrandegia
Antziola 3
Tel.: 943 330 365
Mobila: 665 735 224
20120 Hernani



ANTZIOLA
OKINDEGIA

ANTZIOLA, 3
Tel. 943 55 17 91
HERNANI

ondo pasa gabonetan!

Jostailuen Azoka

Berrrerabilpena eta elkartrukea, Gabonetako oparien 'denda'

Bigarren urtez antolatu du Jostailuen Azoka, Amher elkarteak, Hernaniko Errugbi Elkartek egindako jostailu bilketari esker. Berezik etorkinen haurrak gerturatzen dira, baina hernaniarrak ere gerturatu daitezten sustatu nahi dute: erabiltzen ez dituzten jostailuak eman, eta trukean besteren bat hartu dezatela.

HERNANI AMHER ELKARTEA

Jostailuz betetako gela batean bildu gara Amher elkarteak Ana Mari Siesorekin eta Tomas Elorzarekin; eta ez da harritzekoa. Jostailuen Azoka antolatu dute abendurako, Andre Kaleko 3garren zenbakian; eta mugimendu haundia ari da izaten: «Dagoeneko banatu ditugu 500 jostailu baino gehiago, eta tartean, oso jostailu onak».

Bigarren urtez antolatu dute azoka, Hernaniko Errugbi Elkartek egindako jostailu bilketari esker. Joan den urtean egin zuen bilketa errugbi elkarteak aurrenekoz, eta horrekin, azoka jarri zuen martxan Amherrek. Oso pozik eta harrituta daude, jendearen erantzunarekin: «Errugbi elkarteak bildutako jostailuekin, hiru furgoneta bete genituen. Eta lokalera ere etorri zaigu jendea, jostailuak ekartzera. Jostailu denda batean baino barietate haundiagoa izan dugu hemen. Patineteak, bizikletak, kotxe telegidatuak, kamioiak... Oso jostailu onak ekarri dituzte!», nabarmendu dute. Aurreko horiek izan dira, haur gehien erakarri dituztenak. Dozena bat patinete baino gehiago banatu dituzte, hiru bizikleta, eta kotxez zein kamioiz «beteta» eduki zuten lokalera. Jostailuzko sukalde haundi

bat ere eduki zuten. «Harritzekoa da, zein jostailu onak eman dituen jendeak».

Helburuetako bat da, baliabide gutxien dituzten familietako haurrek jostailu berriak jasotzea Gabonen aurreko egun hauetan. Etorkinak dira gerturatzen diren gehienak, baina nahi dute bertakoak ere azokara hurbiltzea: «Aurten sustatu nahi izan dugu, jostailuren bat ekartzen duenak, trukean beste bat hartzea. Hori ere ona dela iruditzen zaigu, behintzat joku bat edo jostailu bat hartu dezatela. Horrela, datorren urtean ere pozik etorriko dira, erabiltzen ez dituzten jostailuak ekartzera».

Horrekin, jostailuak ematen dituzten haurren ilusioa elikatzeaz gainera, berrrerabilpena eta elkartrukea ere sustatu nahi dute: «Hori ere bada azokaren asmoa, eta aurten bereziki egin dugu indarra. Egun batean, neska koadrila bat hurbildu zen azokara, kuriositatez; eta azaldu genien zertan datzan azoka. Ba hurrengo egunean etorri ziren bueltan, gurasoekin, jostailu pila bat ekartzera. Eta beraiek ere trukean zerbait hartuta, pozik bueltatu ziren etxera».

Gabonetan opari pila bat eskatu beharrean, elkartrukea oso aukera polita izan daitekeela erakusten die azokak. «Guraso ba-



Tomas Elorza eta Ana Mari Sieso, Jostailuen Azokan. Makina bat jostailu dauzkate bertan, oraindik ere.

tzuek ere esan izan digute, jostailu gehiegi dauzkatela haurrek».

Aurreneko egunetan, ilara

Abenduko larunbat eta igande guztietan ireki dute azoka, eta gaurkoa eta biharkoa izango ditu azkeneko bi egunak: gaur goizez zein arratsalde, eta bihar goizez. Asko izango dira, asteburu honetan ere, bertara azalduko direnak. Baina bereziki deigarria izan zen aurreneko egunetakoa: «Lokalera etorri eta ilara ikusi genuen kanpoan. Jakin bazekiten, jostailu haundiak zeudela bertan...». Horien bila jotzen dute gehienek, baina badira gustu jakinak dituztenak ere: «Dino-

sauroen bila etorri zen haur bat, adibidez». Arrakasta gutxiago izaten dute, ordea, puzzleak eta ipuinek, baina hartu ditzaten animatzen dituzte: «Behin jostailuak aukeratuta, esaten diegu ipuin bana hartzeko, behintzat, eta berdin puzzleak. Horiek ere pila bat izan ditugu».

Aurreneko egun horietan, binaka sartzeko eskatzen zieten haurrei, txandak errespetatuz. Guztira, 200 haur inguru hurbildu dira azokara, eta 500 jostailu baino gehiago hartu dituzte: «Inor ez da opari bakarrarekin joan etxera, baina batzuei freno jarri behar izan diegu... Jostailu haundiren bat hartuz gero,

patinetea adibidez, esaten genien beste jostailu txikiren bat, ipuin bat eta jokuren bat hartzeko, baina ez beste jostailu haundi bat. Bestela, hurrengoak horrelakorik gabe geratuko ziren».

Kasu bitxiak ere izan dituzte, Jostailuen Azokan: «Ama bat etorri zitzaigun, jostailuen artean animaliak bilatzera, jaiotzarako», kontatu dute

Arropa bilketa eta banaketa, urte osoan zehar

Bi urteko ibilbidea daramaki jostailuen bilketak eta azokak, baina aurrera begira jarraitzeko asmoa dute Amherrek zein Hernaniko Errugbi Elkartek. Bada

RIOJA TABERNA
Kale Nagusia, 6. Hernani

2022 urtea ere pasa zaigu...
Urte berri on guztioi!

Eukene
Jantxidenda

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Eukene

Nafar kalea, 14 - Tel.: 943 332 199

URA
FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA

Zorionak eta urte berri osasuntsua denontzat!

Kale Nagusia 5, Astigarraga - 613 03 98 23

Asteburu honetan izango da aukera azkenekoz, Jostailuen Azokara gerturatu, erabili gabekoak eraman, eta trukean beste batzuk hartzeko. Hori sustatu nahi izan dute aurten.

Azokaren aurreneko egunetan, ilara zeukaten atean, jostailu «haundiak» hartzeko. Dozena bat patinete, hiru bizikleta eta kotxe autogidatuak eman dituzte, besteak beste.

beste bilketa eta banaketa bat ere, Amherrek urte osoan zehar burutzen duena: arroparena. Duela 10-12 urte hasi ziren egiten, modu xumeagoan aurrena, eta gero eta arropa gehiagorekin orain: «Aurten arropa pila bat ekarri digute, eta ez zaigu kabitzen daukagun lokalean, Florida-ko Lidl-en aurrean. Bertan egoten gara asteazkenero, arratsaldeko 17:00etatik 18:30etara, urte osoan zehar. Eta astero etortzen da jendea, arropa bila. Aurreko astean, esaterako, asko gerturatu ziren», kontatu du Ana Mari Siesok.

Jostailuen kasuan bezala, neurtu egiten dute, bakoitzak zer hartu dezakeen: haur bakoitzarentzat bi jertse, bi kamixeta eta bi galtza, adibidez. Baina hori, bakoitzaren egoeraren arabera egokitzen dute: «Ikusten badugu etorri berri-berriak direla, badakigu gehiago behar dutela, eta uzten diegu gauza gehiago hartzen, noski. Udaberrian etorri zirenak, adibidez, neguko arroparik gabe daude, eta beharra daukate. Horrelako kasuetan, arropa gehiago

ematen saiatzen gara».

Udazkeneko eta neguko giro hotzaren etorrerak areagotu egiten du behar hori, eta espero ez zuten irtenbide bat ere aurkitu dute: Amherreko kide batek dozena bat inguru manta lortu ditu, Unicefen bitartez.

Boluntarioen beharra, Amherren jardueretarako

Azokarekin bezala, beste hainbat ekintzarekin ere buru-belarri dabilta Amher elkarteko kideak, aste hauetan. Eta nabarmendu dute, boluntario beharra daukatela, «haurrei euskerazko eta gaztelaniazko klaseak emateko, eskolako lanetan laguntzeko, Amherren bestelako ekintzetan parte hartzeko...».

Jende falta hori, auzolane-rako eta lan boluntarioetarako, «gero eta ohikoagoa» dela uste du Tomas Elorzak; eta Amherren ez ezik, elkarte gehienetan gertatzen ari dela: «Adineko jendea gabilta, eta gazteak falta ditugu. Nahiko genuke animatzea eta Amherrera gerturatzea». **k**



500 jostailu baino gehiago banatu dituzte dagoeneko, eta asko geratzen zaizkie oraindik, azokan.

Ortodontzia Ikusezinaren Tratamendua
Clear Correct bidez
% 20ko* deskontua
 1990€-tik aurrerako tratamenduak,
 12 etapa + finitza
 3990€-ra arte, mugagabea

AKOI
 HORTZ KLINIKA
 Andre kale 50 - 1.D
 688769675 -
 943554455
 www.akoi.eus

* 2023 osorako balio duen promozioa

Adarraga
 HERNANI (Gipuzkoa)
 Guren jai ospakizunak
 opa ditekizunak
ADARRAGA
Gozotegia
 Urbieta Etorbidea 7
 ☎ 943 55 09 10

Urrutia Farmazia
ZORIONAK ETA
URTE BERRI ON!
 SPD/ANALISIAK/DERMOFARMAZIA/ZERBITZU DESBERDINAK

Etxeberrri Auzoa 1, Hernani 943 55 77 38 / ☎ 688814035
 urrutia.farmacia@gmail.com

Rd 61/15

Zorionak eta urte berri on!

PSE-EE
PSOE HERNANI

Leizuri
 Gorpil gaineko izozki denda

Urte amaierara arte ostegunetan Hernanin eta ostiraletan Astigarragan egongo gara.

Ospatu Gabonak izozkiarekin! food truck

«Olentzeroren sustraietara joz, aurpegirik gabeko panpina sortu dugu»

Aurpegirik gabeko Olentzero berria du Aratz Ikastolak, bertako guraso talde batek egina. Kronikak, guraso taldearekin izan du solasaldia eta Olentzero berri honen ezaugarriak eman dizkigute aditzera. Eguberri egunean, Aratzek errondara aterako du, estreinakoz, generorik gabeko panpin berria.

HERNANI
ARATZ IKASTOLAKO
GURASO TALDEA

Oier Araolazak hankaz gora jarri zituen herritar askoren usteak, urrian eskainitako hitzaldiarekin. Bertan zioen, festak nola ospatu erabakitzeke, jatorrizko esanahiak eta moldeak ezagutu behar direla. *Halloween ala Gau Beltza? Olentzero, Papa Noel ala Erregeak? Zer ospatzen dugu Neguko Festetan?* Horixe da Oier Araolaza Arrietak emandako hitzaldiak zeraman leloa. Araolaza, Neguko Festen ikertzailea da, eta gaiaren bueltako hainbat artikulu argitaratu ditu dagoneko. Eta eskainitako hitzaldi honek, zer pentsatua eman die herriko guraso batzuei: «Barrenak mugiarazi zizkigun».

Gogoeta hark segida izan du orain, Aratz ikastolaren proposamena jaso dutenean gurasoek: Olentzeroren panpin berria egitea. Horrela, Aratzek Olentzeroren panpin berria du, eta eskuz egin dute, detaile txiki bezain esanguratsuak atzean utzi gabe.

Idea batekin sartu zineten Biteriko areto nagusira, hilaren 26an, Araolazaren hitzak entzutera. Baina beste ehunka ideia berriarekin ateratu zineten bertatik. Ikuspuntu batekin joan ginen hitzaldi horretara, eta beste batekin ateratu ginen. Gau Beltza modu isolatu batean tratatu beharrean, neguko ospakizunei buruz jardun zuen, gu testuinguruan jarritz. Hor eman zigun zer pentsatua, ez Gau Beltzari buruz bakarrik, baizik eta Olentzero eta neguko oporrei buruz ere bai.

Beraz, hortik ateratu, eta honakoa galdetu genion geure buruari: neguko oporrak datoz eta ospakizunetz betetzen ditugu egunak, baina ze zentzurekin? Jabetzen gara nondik datozen ospakizun guzti hauek?

Olentzero panpin berria Aratz ikastolan. Zuek egina.

Hori da, gurasoek egin dugu. Eta hitzaldian entzundakoak piztu ziguten Olentzeroren erroak

ezagutzeko gogoak. Jarri genuen zalantzan zergatik ospatzen den ospatzen den modura.

Eta justu, etorri zitzaigun Aratz ikastolan Olentzero berri bat egiteko eskaera. Momentuko Olentzero panpina zaharkitua zegoelako.

Olentzeroren erroak zeintzuk diren aztertu dituzue. Zer edo nor da Olentzero?

Harrigarria badirudi ere, enbor zati bat da Olentzeroa. Jakin genuenean gure eskema guztiak hautsi ziren. Gizon itxura duen pertsonaia baten modura saldu digute, eta Euskal Herriko txoko askotan Mari Domingi pertsonaia gehitu zaio. Baina enborra bada, ez da ez gizona eta ez emakumea.

Orduan, generorik gabeko Olentzeroa da sortu duzuen?

Bai, da naturaren elementu bat non neguko solstizioarekin lotuta, gabon gauean enbor bat jartzen zuten, eta sua pizten zuten. Neguko oporretan, suak sinbolismo haundia zuen. Propietate ugari botatzen zizkieten su horri, ohitura zelako, eta hortik dator Olentzero, enbor horretatik. Euskal Herrian baditu bestelako izenak, adibidez, Olentzero enbor.

Atzera begiratzen badugu, ikusten da genero ikuspegitik, Mari Domingi sortu gabe ere, posible duzula generorik gabeko irudi bat erabili eta gaur egungo baloreetara egokitu.

Hala ere, Olentzerok gaur egun, badu irudi bat, gizonezkoarena. Nondik dator hau?

80garren hamarkadan, Aita Noelen irudiaren antza zuen beste pertsonaia bat sortu nahi zuten, baina hemengoak, Euskal Herrikoa. Hau sortzean, talka batzuk egon ziren, emakumearen presentzia ez zegoelako sortutako pertsonaia honetan. Azken finean, asmoa zen figura bat sortzea, saltokietan saltzeko eta izatea kontsumorako irudi bat. Esan nahi duguna da Olentzero testuingurutik ateratu zutela, eta kontsumorako bideratu zutela.

Orain Olentzero da gizon bat, Euskal Herri osoko umeei opariak egiten dizkiena.

Eta Aita Noelekin berdina gertatu da, enbor batetik dator, eta bilakatu da gizonezko irudi batean, baina sustraiak naturan dauzka.

Olentzeroren atzean historia eta istorio bat dago, bilakaera bat izan duena. Eta Olentzerok ez du zertan izan telebistan edo aldizkarietan irudikatzen dutena. Olentzerok badu bere jatorri propioa.

Atez ate kantari ateratzea abenduaren 24ean, Olentzeroren jatorriarekin badu zerikusirik?

Bai, bete-betean. Olentzeroa jartzen zuten sutan, lurra goxatzeko eta berotzeko, uzta ekar zezan. Eta errondak, badu honekin zerikusia, zuk kantatzeko esfortzua egiten duzu, gero bueltan sari bat jasotzeko. Gertatzen dena da erronda, gaur egungo sistema kapitalistarekin ahultzen ari dela. Gizarteak sortu du 'magia' eta inolako esfortzurik egin gabe, hurrek opariak jasotzen dituzte. Eta horregatik, iruditzen zaigu hurrei errondaren ikuspuntua erakustea oso garrantzitsua dela, ohitura ederra delako.

Aratz ikastolan lehen Olentzeroren panpin bat zegoen, orain, aldiz, zuek sortutako generorik gabekoa dago. Ez al da talka haundia izango?

Hasieran zalantzak izan genituen. Olentzeroren erroa zein zen jakin genuenean, konturatu ginen, ezin genuela sortu ume, gazte zen helduen ikuspuntu guztiak hautsiko zituen Olentzero bat, pixkanaka joan behar genuela ohartu ginen eta sortu dugu aurpegirik gabeko Olentzero bat. Ez dauka generorik, ez da ez gizon eta ez emakume. Baina oraindik gogorarazten digu orain arte izan dugun irudiari, pertsona bati. Ez dago kolpeko aldaketa haundirik. Pertsona baten figura du, baina aurpegirik gabea da.

Inguruan jarri ditugu naturako elementuak irudikatzen dituen apaingarriak, hala nola, hostoak, makilak, sua ere irudikatu dugu... Eta Olentzeroren bizkarrean, jarri ditugu beste herrietan Olentzeroa izendatzeko erabiltzen dituzten hitzak.

Aratzeko ikasleei ere emango die zer pentsatu Olentzero



Aurpegirik gabeko Olentzero panpina sortu dute Aratzeko gurasoek, eta ikastolan daukate, goxo-goxo.

berriak. Zer lortu nahiko zenukete?

Gure helburuetako bat da datozen urteei begira, ikasleek sortzea Olentzeroa. Gaia irakasleekin landu ostean, imajinarioarekin jokatu eta urtero ikasleek sortu dezatela Olentzeroa. Guk egindako guzti hau abiapuntu bat da, gero ederra izango litzateke bakoitzak etxean haurrarekin Olentzeroren gaia lantzea eta kontatzea nondik datozen eta eskoletan, berdin.

Sortutako Olentzeroa gainera, bai genero ikuspegitik, bai eta aniztasun ikuspegitik egokia da.

Aratzeko Olentzeroa Gabon Gauean aterako al dute kalera?

Bai, erronda Olentzero berriarekin egingo dute Aratzeko irakasleek eta ikasleek, urtero moduan, errondari ere garrantzia emateko, esan bezala, ohitura

galtzen ari baita.

Zuen panpinak aurpegirik ez dauka, baina aldi berean, Euskal Herrian Olentzerok hamaika aurpegi al ditu?

Ez dago Olentzeroren aurpegi edo irudi finkorik. Gizonezkoa dela bai, baina izan daiteke ile beltzarekin eta Lesakakoa, izan daiteke ile zurikoa eta Bilbokoa, edota ile kizkurragoarekin, piparik gabe eta Hernanikoa. Hau guztia izan da gizarte kapitalistaren emaitza argia. Eta esan beharra dugu, hurrek askoz hobeto barneratzen dutela Olentzeroa enborretik datorrela. Haietzako garrantzitsuenak opariak baitira. Gure semeetako batek galdetu zigun: eta enbor hori Olentzero bada, opariak ekartzen ditu? Noski txikientzat garrantzitsua da jasotzen dutena, beraz, enborra edo pertsona izan, berdin zaie. **k**

Gabon jai zoriontsuak opa dizkizuegu!
2023 zoriontsua izan dezazue!


Santa Barbara auzoa 87
20120 HERNANI
tel 943 337 211
mov 629 991 476
info@arrobiestatua.com

www.arrobiestatua.com



Itzala

Ui... Trena
galduko duela
ematen du,
baina zein
da bere itzal
zuzena?



Margotu

Hona hemen tren zahar bat. Dena margotu baino lehen, marraztuko dizkiozu: 1) ke beltz zikina. Tximiniatik gora ezkerrentz doa. 2). Bi txantxangorri zorabiatuta. 3) Gidariaren burua leihoan, bisera eta guzti. 4) Zure gustuko animalia (zakurra, elefantea...) kabinako teilatuaren gainean.

EGILEA: Garbine Ubeda (Aiurri)

SOLUZIOAK: Sartu www.plazanbazan.eus
web atarian eta denbora-pasa hauen solu-
zioekin batera beste hainbat jolas aurkituko
dituzu.

Orak irakurtzeko
aplikazio batekin
irakuri





OLENTZERO ETA MARI DOMINGI MAITEAK,
_____ NAIZ, ___ URTE DITUT, ETA _____-N BIZI NAIZ...

Lined area for writing the letter.

Hartu margoak
eta ekin
margotzeari!

